

Amona eta txoria

Amona eserita dago sukaldean. Lehioa eta atea itxita daude. Ay ay ay! Amona triste dago, bakarrik dago eta. Zer egiten du amonak? Josi eta josi, josi eta josi. Ez daki beste gauza bat egiten.

**Negua da eta hotz handia kanpoan. Amonak tac tac entzun du kristalean. Beldurtuta esaten du:
- Nor dago hor?**

Orduan, txori bat dago. Barrura sartu nahi du, baina ezin du, lehioa itxita dago.

- Ireki lehioa, amona, goseak eta hotzak nago – esaten dio txoriak.

Amonak lehioa ireki du eta txoria barrura sartu da. Sukaldea bero bero dago eta txoria amonarekin geratu da. Orain, amona ez dago bakarrik, biak pozik daude.

Baina, negua pasatu da eta eguzkia irten da. Txoria lehio ondoan kanpora begira dago, alde egin nahi du, baina ezin du, lehioa itxita dago.

Amona negarrez ari da eta txoriak esaten dio:

- Amona, negarrez zaude?**
- Bai, zu bazoaz eta ni bakarrik geratuko naiz berriz.**
- Ez, amona, zure lorategian geratuko naiz eta gauean sukaldean lo egingo dut.**
- Bai, egia da hori? – esaten du amonak.**

Eta amonak lehioa ireki dio eta txoria sukaldegitik irten da eta lorategia doa. Han kantatzen ari da.

Orain, amona ez dago bakarrik eta oso pozik dago.